

Bero-beroan

Euskarazko Wikipedian 23.607 sarrera

JOXE ARANTZABALEK Jakinen 164. zenbakian errepassoa eman dio euskarazko Wikipediari; hainbat datu mahai gaineratu du eta hobetzeko dagoenaz hitz egin du. 2008ko urtarilaren 27an Wikipediak 9.250.000 artikulua zituen argitaratuta 253 hizkuntzatan. Artikulurik gehien ingelesez daude, 2.186.431. Euskaraz 23.607 artikulua daude eta konparaziorako katalanez 100.538 artikulua. Euskarazko Wikipedia 2002ko uztailan sortu zen. Gaur egun 1.846 langide daude izena emanda eta 60 inguru ari dira edukiak editatzen, zuzentzen eta osatzen. Sei dira administratzaileak. “Lehen begiratuan ez gaude gaizki” dio Arantzabalek baina zer hobetu proposatu du:

✓ Sarrera asko oso-oso laburrak dira eta ikasleek eduki gutxi dagoela

ikusita, gaztelaniazko edo frantsezko bertsiora jotzen dute.

✓ Irakasle askok ez du ezagutzen euskarazko Wikipedia eta beste batzuek begi txarrez ikusten dute ikasleek kopiatzeko erabiltzen dutelako.

✓ Euskal Herriko administrazioa ez da ohartu duen garrantziaz eta ez du laguntzen.

Katalan hiztunak sarean indartsu

EUROPAKO BATZORDEAK antolatutako foroetan hala dirudi behintzat. Miquel Strubell Universitat Oberta de Catalunya irakasleak gipuzkoaeuskara.net webgunean azaldu du Europako Batzordeak abian jarritako hiru sareko forotan katalanak nolako indarra hartu duen. Hiru gairi buruz antolatu dituzte eztabaida foroak: “Klima aldaketa eta energia”, “Euro-

paren etorkizuna” eta “Kulturen arteko elkarrizketa”. Strubellek otsailaren 21eko parte hartze kopuruak aipatu ditu adibide moduan: zerrendan aurrena jarri zen ingelesezko foroa, 2.062 partehartzaileekin, katalanak bigarren postuan ziren 808 partehartzaileekin, italiara (381 partehartzaile), frantsesa (302) eta gaztelania (268) atzetik ziren. 2006ko foroetan ere katalanak arrakasta handia izan zuen eta Europako Batasunean ofizial diren poloniera, suediera edota portugesa baino partehartzaile gehiago zituen.

“Bikain” ziurtagiria eskuratzeko prozesua abian da

BIKAIN ZIURTAGIRIA

Eusko Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskalit fundazioak landu dute. Esparru sozioekonomikoko enpresa eta erakundeentzako ziurtagiria eskuratzeko



epa ireki dute martxoaren 31 artean (www.euskalit.net/bikain). Hiru motako ziurtagiriak eskatu ahal izango dituzte, konpromiso mailaren arabera: beltza, zilarrezkoa ala urrezkoa.

TALAIAN

Emakume “izenak”

Pasa den larunbatean Emakumearen Nazioarteko Eguna edo Emakume Langilearen Eguna ospatu da munduan. Urteko data asko bihurtu dira zerbaiten egun: bakearena, aitarena, amarena, ingurumenarena, autorik gabekoarena, halako gaixotasunena eta abar. Data gehiegi dira, eta batzuetan kontsumoa bultzatu edo administrazio eta erakundeek urtean zehar baztertuta dituzten eskubideen defentsa justifikatzeko aitzakia modura baino ez dute balio. Hori gerta daiteke batzuetan Emakume Langilearen Egunarekin. Emakumeak bizi duen errealitateak, ordea, herritarrak, administrazioak eta erakundeak behartu beharko gintuzke emakumeen defentsarako politika zehatzak garatzera.

Egoera askok dute, zoritxarrez, emakume izena eta guztiak bidegabeak dira. Lan prekarietateak emakume izena du, hiru emakumetik batek aldi baterako kontratua duelako. Langabeziak emakume izena du, emakumeen langabezia tasak gizonetzat bikoizten duelako. Desberdintasun eta diskriminazioak emakume izena du, lan berdina egiteagatik gizonetzeko baino %25 gutxiago irabazten dutelako eta beraien etxeetan gizonetzeko baino lan gehiago egiten dutelako. Txirotasunak emakume izena du milaka alargunek jasaten dutelako, 500 euroko pentsioa baino gutxiago irabazten baitute. Prostituzio eta esklabotza sexualak emakume izena du milaka emakumek pairatzen dutelako mafien jazarpena. Indarkeria matxistak emakume izena du asko direlako beraien bikotekideek erailak eta beste milaka tratu txarrak jasaten dituztenak. “Emakume izen” gehiegi. Horregatik, herritarrok, erakundeek, administrazioek, alderdiek, sindikatuek, enpresek, elkarteek eta ikastetxeek emakumearen defentsarako eta gure gizarteko matxismo eta autoritarismoa deuseztatzeko politika eraginkorrek ezartzeko konpromisoa hartu beharko genuke.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Juan Uriagereka hizkuntzalariak E/Correan esanak: “7.000 hizkuntza inguru daude, baina batzuk galtzen ari gara. Biodibertsitatearen galeraren pareko tragedia bizitzen ari gara, eta zer egin dezakegun ez dago argi. Apustu baliagarri bakarra eleaniztasuna da (...) Lau edo bost hizkuntza hitz egitea izan beharko litzateke normalena. Ez dago filologoa izan beharrik. Ni Galizian hezi ninduten. Galegoa izan zen nire lehenengo hizkuntza, gaztelera eskolan ikasi nuen, ondoren ingelesa, eta alemanez eta euskaraz ere gutxi gorabehera moldatzen naiz”.